


# 2001EKO JARDUERAK



## **0. Egoera orokorra**

Elkarteak aurrera jo eta ekimen oso garrantzitsu batzuk burutu zituen, bai barne antolakuntzari dagokionez, eta bai bere estatutuetan aipatzen diren helburuei dagokionez.

Elkarteak 2001garren urtean, zailtasun politiko eta finantzario guztiak kontutan izanik, bere barne antolaketa bermatzen (egoitza, oinarritzko azpiegitura e.a.) eta bere lan egitaraua bideratu zituen.

## **1. Ekimenak**

Garatutako ekimen guztiak, Udalek dituzten konpetentzi arloetan burutu ziren.

Egitarauari dagokionean, laguntza behar duten hiritar sektoreekin harremanak edukitzea izan zen egitekorik nagusiarena; hau da, euskara, eta kultura lantzen ari diren elkarte eta sektoreekin. Elkarte askorekin egon eta beraien kezkak eta beharrak jasotzen eta behar bezalako erantzuna ematen saiatu zen Udalbide.

Euskara eta Kulturaren arloan, bere egoera ahulena den lekuetan eta laguntza berezia behar duten tokietan, bere babesa ematen saiatu da UDALBIDE. Horrela, Nafarroan eta Iparraldean, kultura eta komunikabideetako sektoretan gure hizkuntza, euskara, landu eta garatzen ari diren ekimenei bultzada emanaz.

**Iparraldean**, honako elkarteei eman zaie babesa:

- ▀ **UDA-LEKU (36.000 euro)**: euskal kultura bultzatuz, eskola haurrentzat aisialdiak euskaraz antolatzen dituen elkarte, Iparraldean, baina Hegoaldekoekin trukaketa eta elkarrekiko egonaldiak eginaz. Baita ere, elkarte honek euskarazko haurtzaindegi bat kudeatzen du Iparraldean. Elkarte hau oso egoera txarrean aurkitzen zen, kontutan harturik Iparraldeko agintariek ez dutela laguntzen. Udalbideren laguntzari esker UDA-LEKU Elkarteak bere lana egiten jarraitu dezake.
- ▀ **IKAS-BI (83.000 euro)**: sare publikoan dabilzan neska-mutilen gurasoen elkarte eta euskal kultura eta euskara garatzen ahalegintzen dena. Eskolan dabilzanen egonaldiak finantzatzen lagundu zaie, Hegoaldekoekin trukaketak eta topaguneak bideratzen eta euskarazko testuak egiten jarraitzeko dirulaguntza eman zaie, matematika gaiak euskaratzeko eta NANAI aldizkaria argitaratzeko.
- ▀ **EUSKAL HAZIAK (7.600 euro)**: sare pribatu edo katolikoan euskal kultura eta euskara suspertzen saiatzen den elkarte.
- ▀ **EUSKAL IRRATIAK** jaso zuen diru-laguntza bat bere azpiegitura teknikoa berritzeko (**44.000 euro**). Elkarte honetan hiru irrati biltzen dira Iparraldean eta euskal kultura eta euskara bultzatzen dute: Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza. Jaso duten laguntzari esker, beraien emisio jardunaldiak hobetzeko modua izan dute.
- ▀ **GARAZIKUS** elkarteari ere, eman zitzaion babesa kultur gaietan (**1.800 euro**), ekintza kulturalen hiruhilabeteko ekitaldien gida bat argitaratzeko; alegia, Iparraldeko etxe guztietan banatzen den gida kultural bat argitaratzeko.

**Nafarroan** ere esparru berdinak izan dira ukitu direnak. Denok dakigu Nafarroan euskal kulturak eta euskarak pairatzen duten egoera nolakoa den. UDALBIDEk bere adierazpen batean, euskal kultura eta euskara defendatu eta sustatu beharra azpimarratzen zuen eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko eskatzen zien Nafarroako agintari foralei, euskara ondare kultural bezala tratatu zezaten eta hiritar denen ondare moduak kontsideratua izan zedin.

Honela, burututako ekintza zehatzak hauek izan dira:

- **EUSKARA KULTUR ELKARGOA (30.000 euro):** Nafarroan euskal kultura eta euskara bultzatzen duen elkarte bat da. Eta "Artekaria" deituriko ekimena martxan jartzen lagundu zion Udalbidek. Bi abokatuk egiten dute lan zerbitzu honetan eta nafarren hizkuntza eskubideak defendatzea du helburu, bereziki euskararenak, noski, norberakoaren eta taldeen euskara erabiltzeko eskubideak babestuz.
- **SORTZEN (15.000 euro):** "Euskaraz mintzo" ekimena: eskola ordutik kanpo, haur eta gurasoentzako ekitaldi kulturalak euskaraz antolatzeke (jolasak eta jokoak). Eskolako geletatik at ere euskararen erabilera bultzatzea zuen helburu eta baita, gurasoak horretan buru-belarri parte hartzea ere.
- **EUSKALERRIA IRRATIA (37.500 euro):** Iruñea aldean egiten du euskarazko irrati honek, Betelu eta Sakana aldera iristen bada ere. Nolanahi ere, Nafarroako eskualderik euskaldunenak harrapatzen ditu. Udalbideren laguntzari esker, heien antolamendu sistema berri eta gaurkotu dute, emisorea digitalizatuaz eta RDSI ildoan erositaz, horrela emisioen kalitatea nabarmen hobetuz.

**Euskal Herri osorako** aldiz, honako elkarteei eman zitzaien babesa:

- Euskarari dagokionean hitzarmen bat sinatu zuen UDALBIDEK **EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTUAREKIN** (SEIrekin **30.000 euro**). Gure udalerrietako euskararen erabilera neurtzen ari da erakunde hau, diru-laguntza hori dela medio. Euskal Herriko udalerrri guztiak jasoko dituen ikerketa honek, gure herrietako euskararen erabilera zenbatekoa den jakiteko balioko du eta, ondorioz, euskararen erabilera areagotzeko hartu beharko ditugun neurriak zeintzuk diren hautatzen lagunduko zaio.
- Baita ere, **UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEARI (UEU)** **12.000 euro**tako diru laguntza eskaini zitzaien euskal kultura hedatzeagatik ikastaroen bitartez.

Azkenik, aipamen berezia 2004ean ospatzeko asmoa duen Antxo IIIgarren Handiaren koroatzearen milaurteurrena ospatzeko ekitaldiari. **FORO IRUN XXI** eta **EUSKOKULTUR** elkarte kulturelek bultzatzen duten ospakizun honi geure babesa eman diogu (**144.000 euro**). Egingo diren ekintza nagusienak:

- kantata bat sortu nahi da eta horretarako Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearekin bildu da;
- garai hartako Euskal Herrian bizimodua eta gizarte giroa islatuko dituen antzerki bat sortu eta hedatzea;
- urte haietako gizartearen ezaugarriak eta zer-nolakoak bilduko dituen saio historiko bat idazteko lehiaketa antolatzea;
- Hondarribiako udalarekin batera, Antso IIIgarren Handiaren ohorez monumentu bat eraikitzea, Higer lur muturraren gainean, toki-gune hartatik Euskal Herriko hiru komunitate administratiboak ikusten direlarik: Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea.

Ekintza hauen bitartez gauza bat hurbildu nahi zaie euskal hiritarrei. Hau da: 1004an ere bazela euskal gizarte bat, bere modura eta erara bizi zena, euskaraz bizi zena, bere barne egitura librea eta antolamendu propioa zuena eta aldameneko herriekin harreman onak eta auzokideak zituena. Eta hori, Antso IIIgarren Handiaren babesean, zerbaitengatik deitu zioten musulmandarrek, koroatu zutenetik, "Euskaldunen jauna".

## 2001. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 440.900 euro

<b>NAFARROA</b>	<b>82.500 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>SORTZEN</b>	15.000
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>EUSKALERRIA Irratia</b>	37.500
<b>Kultura</b>	
✓ <b>Euskara Kultur Elkargoa (EKE)</b>	30.000

<b>IPARRALDE</b>	<b>172.400 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>UDALEKU</b>	36.000
✓ <b>IKAS-BI</b>	83.000
✓ <b>EUSKAL HAZIAK</b>	7.600
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>EUSKAL IRRATIAK</b>	44.000
<b>Kultura</b>	
✓ <b>GARAZIKUS Elkarte</b>	1.800

<b>EUSKAL HERRI Osoa</b>	<b>186.000 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>UEU</b>	12.000
<b>Kultura</b>	
✓ <b>SEI (Euskal Soziolinguistika Institutoa)</b>	30.000
✓ <b>Foro Irun XXI Eta Euskokultur</b>	144.000